Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benitez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Eneko Andueza Lorenzo jauna.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

D. Itoitz García-Antón Lorenzo jauna.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamabosteko urriaren hogeita seian, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veintiséis de octubre de dos mil quince y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/-as anteriormente mencionados/as.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

<u>1. ATALA</u>

<u>2015eko irailaren 28an Udalbatzak egindako bilkurei dagozkien akta-zirriborroak onartzea.</u>

<u>PUNTO 1º</u>

<u>Aprobación de los borradores de actas correspondientes a las sesiones de Pleno Municipal celebradas el 28 de septiembre de 2015.</u>

Abanzabalegui andreak hartu du hitza eta esaten du, bere Taldea, normalean, abstenitu egin izan dela orain arte atal honetan, baina oraingoan kontrako botoa emango dutenez horren azalpena emango duela: azkeneko udalbatzan publikoaren interbentzioak aktan ez jasotzea da arrazoia.

Interviene la señora Abanzabalegui quien manifiesta que su Grupo normalmente se ha venido absteniendo en este punto, pero que dará una explicación de porqué votarán en contra, y en concreto, es porque no se recogen las intervenciones del público en el último pleno.

Bilkura hartan, dio Abanzabalegui andreak, Arratebideko bizilagunek bertan egin berri den obraren akats batzuk Udalak konpontzea eskatu zuten eta Alkate jaunak erantzun bat eman zuen; bestalde, publikoko pertsona batek EAJ-PNVk aurkeztu zuen mozioarekin bate gin zuen

En dicha sesión plenaria, continúa, los vecinos de Arratebide hicieron una solicitud para que se arreglasen las obras que se están realizando en el barrio, y el señor Alcalde dio una respuesta; una persona del público se adhirió a la moción presentada por el PNV y dio sus razones,

eta bere azalpenak eman zituen —eta horiek ere ez da aktan jasotzen—, Txontako bizilagunek eskaera asko egin zituzten, ohikoa den bezala auzo haren egoeraren inguruan: ez dela telebista ondo ikusten, Mankomunitateko beharginek ez dutela auzoa behar bezala garbitzen, aparkalekua ez dagoela ondo seinalizatuta…Horiek ere ez dira aktan jaso.

Gaineratzen du 2011. urtean EH Bildu Udalean sartu zenean, Udalaren Barne Araudian aldaketa batzuk sartu nahi izan zituela herritarrek parte-hartze gehiago izan zezaten bai udal osoko bilkuretan nahiz batzordeetan, baina azkenean lortu zutena beren kontrakoa izan zela, harrez geroztik parte-hartzeko arauak gehiago zorroztuko zirelako eta, horren ondorioz, interbentzioen denbora mugatu egin da eta aktan ez dira jasotzen publikoak esandakoak.

Segitu du esaten bere Taldea ez dagoela ados arau hauekin baina, ahal duten neurrian, errespetatzen dituztela; eta bere ustez, arau hauen aldeko botoa eman zutenek arauok errespetatu egin behar dituztela, eta ez zaiola zuzena iruditzen, azkeneko udalbatzan gertatutakoa, EAJ-PNVko zinegotzi batek, publikoak hitza zuen unean, publiko bezala jardungo balu bezala, hitza eskatzea, arauak denek errespetatu behar dituztelako eta jakin baita bakoitzak zein aldetan jokatzen duen, bestela, partxisean tranpak egitea bezalakoa izango litzatekeelako.

que tampoco se recogen en el acta; y los vecinos de Txonta hicieron mucha solicitudes, como viene siendo habitual sobre la situación del barrio: que no se ve bien la televisión, que los operarios de la mancomunidad no limpian como es debido, que el parking no está bien señalizado, etc.; y tampoco se recogen en el acta.

Añade que cuando en el año 2011 EH Bildu entró en el Ayuntamiento, intentaron introducir en el Reglamento Orgánico modificaciones porque deseaban mayor participación, tanto en los plenos, como en las comisiones, y que lo que lograron fue en su contra, pues las normas de participación se restringieron más y así se limita el tiempo de intervención y no se recogen en acta.

Continua afirmando que su Grupo no está de acuerdo con estas normas, pero que las respetan en la medida que pueden, y que cree que los que votaron a favor de estas normas las tienen que respetar también y que no le parece correcto que en el último pleno un concejal del PNV en el momento de intervenciones del público pidiera la palabra, como si fuera público, pues todos tienen que respetar las normas y saber de qué lado se juega, pues lo contrario sería como hacer trampas al parchís.

Amaitzeko esan du, beraien iritziz, esandako guzti hori Parte hartzeko Ordenantzarekin konpon daitekeela.

Finaliza afirmando que consideran que todo esto se puede arreglar con la Ordenanza de Participación.

Alkate jaunak dio Udal Osoko Bilkuran gertatzen ez dena ez dela aktan jasotzen; onartzen ari dena Udalbatza hartan gertatu zena jasotzen duen akta dela, eta Abanzabalegui andreak esandakoa bilkura amaitu ondoren gertatu zela.

Indica el señor Alcalde que lo que no pasa en el Pleno no se recoge en el acta, que lo que se está aprobando es el acta que es el reflejo de lo que pasó en el Pleno, y que lo dicho por la señora Abanzabalegui ocurrió una vez levantada la sesión de pleno.

Alkateak gaineratzen du, bilkurari amaiera eman ondoren, zinegotziek beraiek ere joan daitezkeela bilkuratik, baina gehienak geratu egiten direla, errespetuz.

Añade que incluso una vez levantada la sesión, los propios concejales podrían marcharse, pero que la mayoría se queda por respeto.

Amaitzeko esan du Parte hartzeko Ordenantza bat egiten ari dela eta ikusiko dela horrekin noraino iritsi daitekeen eta Barne Araudiaren aldaketa bat egitea eskatzen duen.

Concluye que se está redactando una Ordenanza de participación y que se verá hasta dónde se llega con ella, y si exige una modificación del Reglamento Orgánico.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Esan du, bilkurara datozenek, esateko dutena entzutea eta erantzutea eskatzen diotela zinegotziei, eta bilkura amaituta egon arren eta aktan jaso ez, bere Taldeko zinegotziek hiritarrek diotena zinegotzi bezala entzun eta erantzuteko asmoa edo borondatea dutela.

Interviene el señor Mendicute para decir que los que vienen al pleno quieren que los concejales les escuchen y contesten y que aunque el pleno esté finalizado y no se recoja en acta, los concejales de su Grupo muestran la voluntad de escuchar y responder a los ciudadanos como concejales.

Berriro hartu du hitza Abanzabalegui andreak eta esan du gertatu zena zera izan zela, zinegotzi horrek publikokoa balitz bezala hartu zuela hitza, ez Udalbatzarrari eskaera bat egiteko, jendeari erantzuteko baizik, eta bere Taldeak horrelakoetan ez

Interviene de nuevo la señora Abanzabalegui para decir que lo que ocurrió es que el concejal tomó la palabra como público, no para hacer una petición al Pleno; sino para contestar al público y que su Grupo no ha tomado la palabra

duela hitzik hartu izan zinegotziek publikoari erantzutea ez dela onartzen esan zaielako, udal osoko bilkura amaituta egon arren.

porque se le ha dicho que no está admitido que los concejales respondan al público, aunque haya finalizado el pleno.

Alkate jaunak dio, bere ustez, une hau ez dela egokia udal osoko bilkura amaitu ondoren gertatu zenaren inguruan eztabaidan ibiltzea.

Indica el señor Alcalde que cree que no es procedente en este momento discutir sobre lo que pasó una vez finalizado el pleno.

Akten zirriborroak botaziopean jarrita onartu egin dira emaitza honekin:

Sometidos a votación los borradores de actas, se aprueban con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ezezko botoak: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Votos negativos: Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU) García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Ez dago abstentziorik.

Abstenciones: ninguna.

2. ATALA Agiriak eta posta-bidezkoak.

PUNTO 2º Despachos y comunicaciones.

Eibarko EAJ-PNV Udal Taldeak egindako idatzi baten berri eman da, Ogasun Batzorde aholkularian bokala aldatzeko, hain zuzen ere Eva Juez Garmendia andrearen ordez Elena Ibañez Anuncibay andrea jartzeko.

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

Se da cuenta de un escrito del Grupo municipal Eibarko EAJ-PNV de cambio de vocal en la Comisión Asesora de Hacienda, proponiendo a Elena Ibañez Anuncibay en sustitución de Eva Juez Garmendia.

El Pleno se da por enterado.

Alkateak emandako dekretu hauen berri eman zaio udalbatzari:

"ALKATETZAREN DEKRETUA

UDAL AURREKONTUKO KREDITU GAIKUNTZAREN BIGARREN ESPEDIENTEA

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluak ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez, 2015. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak,

HAUXE ERABAKI DUT

Udal aurrekontuaren kreditu gaikuntzaren bigarren espedientea onartzea. Hona hemen horren zenbatekoak:

Se da cuenta de los siguientes Decretos de Alcaldía:

"DECRETO DE ALCALDIA

SEGUNDO EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2015,

RESUELVO

la aprobación del segundo expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto

Municipal, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 8 | Finantza aktiboak | 179.518,52 |

Guztira gehikuntzen adina 179.518,52

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonal gastuak | 129.124,62 |
| 4 | Transferentzia arruntak | 50.393,90 |

Kredituen gehikuntza, guztira: 179.518,52

Eibarren emana, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita bederatzian.

Alkateak, Miguel de los Toyos Nazabal."

RESUMEN POR CAPITULOS

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 8 | Activos financieros | 179.518,52 |

TOTAL igual a los aumentos 179.518,52

II. CREDITOS EN AUMENTO

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos Personal | 129.124,62 |
| 4 | Transferencias corrientes | 50.393,90 |

TOTAL Créditos en aumento 179.518,52

Dado en Eibar a veintinueve de septiembre de dos mil quince.

El Alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

El Pleno se da por enterado.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

2015EKO UDAL AURREKONTUKO KONTU SAILEN ARTEKO TRANSFERENTZIEN ZAZPIGARREN ESPEDIENTEA

"DECRETO DE ALCALDIA

SÉPTIMO EXPEDIENTE DE TRANSFERENCIAS DE CREDITO DEL PRESUPUESTO MUNICIPAL 2015.

"Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 29. artikuluak ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez, 2015. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak,

"De conformidad con lo dispuesto en el artículo 29 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto Municipal para el Ejercicio 2015,

HAUXE ERABAKI DUT

RESUELVO

Udal Aurrekontuko Kreditu transferentzien Zazpigarren espedientea onartzea ondoren aipatzen diren zenbatekoetan:

la aprobación del Séptimo Expediente de Transferencias de Créditos del Presupuesto, cifrado en las siguientes cantidades:

LABURPENA KAPITULUKA

RESUMEN POR CAPITULOS

I. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

I. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 2 | Gast. ondas. arrunt eta zerb. | 73.996,20 |
| | Guztira gehikuntzen adina | 73.996,20 |

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 2 | Gtos. en B. corrient. y ser. | 73.996,20 |
| | Total igual a los aumentos | 73.996,20 |

II. KREDITUEN GEHIKUNTZA

II.CREDITOS EN AUMENTO

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia arruntak | 73.996,20 |

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferenc.corrientes. | 73.996,20 |

Kredituen Gehikuntza guztira 73.996,20

Eibarren emana, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita bederatzian.

Alkateak, Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

EIBARKO KIROL PATRONATUAREN AURREKONTUAREN KREDITU GAIKUNTZAREN LEHENENGO ESPEDIENTEA,

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluak ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez, 2015. urteko aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak,

HAUXE ERABAKI DUT:

Eibarko Kirol Patronatuaren Aurrekontuko Kreditu Gaikuntzaren Lehenengo

Total Créditos en aumento 73.996,20

Dado en Eibar a veintinueve de septiembre de dos mil quince.

El Alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

"DECRETO DE ALCALDIA

PRIMER EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITO DEL PRESUPUESTO DEL PATRONATO MUNICIPAL DE DEPORTES DE EIBAR

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto para el Ejercicio 2015,

RESUELVO:

la aprobación del Primer Expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto del Patronato Municipal de Deportes de

espedientea hemen azpian aipatzen diren zenbatekoetan onartzea:

I. KREDITUEN GEHIKUNTZA

LABURPENA KAPITULUKA

| Kap | Izendapena | Euroak |
| --- | --- | --- |
| 1 | Pertsonalaren Gastuak | 8.483,77 |
| GUZTIRA | | 8.483,77 |

II. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
| --- | --- | --- |
| 4 | Transferentzia Arruntak | 8.483,77 |
| GUZTIRA | | 8.483,77 |

Eibarren emana, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita hamarrean.

Alkateak, Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

"JUAN BAUTISTA GISASOLA" HERRIKO MUSIKA ESKOLAREN PATRONATUKO AURREKONTUAREN KREDITU GAIKUNTZAREN LEHENENGO ESPEDIENTEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren

Eibar, cifrado en las siguientes cantidades:

I. CREDITOS EN AUMENTO

RESUMEN POR CAPITULOS

| Capít | Denominación | Euros |
| --- | --- | --- |
| 1 | Gastos de personal | 8.483,77 |
| TOTAL | | 8.483,77 |

II. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
| --- | --- | --- |
| 4 | Transferencias Corrientes | 8.483,77 |
| TOTAL | | 8.483,77 |

Dado en Eibar a treinta de septiembre de dos mil quince.

El Alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

"DECRETO DE ALCALDIA

PRIMER EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITOS DEL PRESUPUESTO DEL PATRONATO ESCUELA PUBLICA DE MUSICA "JUAN BAUTISTA GISASOLA"

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las

31. artikuluak ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez “Juan Bautista Gisasola” Herriko Musika Eskolaren Patronatuko 2015. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak.

HAUXE ERABAKI DUT

“Juan Bautista Gisasola” Herriko Musika Eskolako Patronatuaren Aurrekontuko Kreditu Gaikuntzaren Lehenengo espedientea hemen azpian aipatzen diren zenbatekoetan onartzea:

I. KREDITUEN GEHIKUNTZA
LABURPENA KAPITULUKA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonalaren Gastuak | 5.171,42 |
| GUZTIRA | | 5.171,42 |

II. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia Aruntak | 5.171,42 |

Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto del Patronato Escuela Pública de Música “Juan Bautista Gisasola” para el Ejercicio 2015,

RESUELVO

La aprobación del Primer Expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto del Patronato Escuela Pública de Música “Juan Bautista Gisasola”, cifrado en las siguientes cantidades. :

I. CREDITOS EN AUMENTO
RESUMEN POR CAPITULOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 5.171,42 |
| TOTAL | | 5.171,42 |

II. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferencias Corrientes | 5.171,42 |

GUZTIRA 5.171,42

Eibarren emana, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita hamarrean.

Alkateak, Miguel de los Toyos Nazabal."

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

"ALKATETZAREN DEKRETUA

"SAN ANDRES" NAGUSIEN EGOITZA FUNDAZIO PUBLIKOAREN AURREKONTUAREN KREDITU GAIKUNTZAREN LEHENENGO ESPEDIENTEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 31. artikuluak ezarritakoari jarraituz, ondoren aipatuko diren kontzeptuei dagozkien gastuak egiteko premia eta beharra dagoenez 2015. urteko udal aurrekontuaren kontu-sailetan izendatutako kredituak ez direlako behar adinakoak,

HAUXE ERABAKI DUT:

"San Andres" Nagusien Egoitza Fundazio Publikoaren Aurrekontuko Kreditu Gaikuntzaren Lehenengo espedientea

TOTAL 5.171,42

Dado en Eibar a treinta de septiembre de dos mil quince.

El Alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal."

El Pleno se da por enterado.

"DECRETO DE ALCALDIA

PRIMER EXPEDIENTE DE HABILITACION DE CREDITO DEL PRESUPUESTO DE LA FUNDACION PUBLICA RESIDENCIA DE ANCIANOS SAN ANDRES.

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 31 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, y considerando la necesidad y urgencia de los gastos a realizar en los conceptos que a continuación se detallan, al ser insuficientes los créditos consignados en las correspondientes partidas del Presupuesto para el Ejercicio 2015,

RESUELVO:

la aprobación del Primer Expediente de Habilitación de Créditos del Presupuesto de la Fundación Pública Residencia de

hemen azpian aipatzen diren zenbatekoetan onartzea:

I. KREDITUEN GEHIKUNTZA

LABURPENA KAPITULUKA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 1 | Pertsonalaren Gastuak | 34.797,90 |
| | GUZTIRA | 34.797,90 |

II. DIRUAREN NONDIK NORAKOA

| Kap | Izendapena | Euroak |
|---|---|---|
| 4 | Transferentzia Aruntak | 34.797,90 |
| | GUZTIRA | 34.797,90 |

Eibarren emana, bi mila eta hamabosteko irailaren hogeita hamarrean.

Alkateak, Miguel de los Toyos Nazabal.”

Udal Batzarra jakinaren gainean geratu da.

3. ATALA

Erakunde, Lurralde eta Lege gaietarako Lan Batzordetik.

Ancianos San Andrés, cifrado en las siguientes cantidades :

I. CREDITOS EN AUMENTO

RESUMEN POR CAPITULOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 1 | Gastos de personal | 34.797,90 |
| | TOTAL | 34.797,90 |

II. PROCEDENCIA DE LOS FONDOS

| Capít | Denominación | Euros |
|---|---|---|
| 4 | Transferencias Corrientes | 34.797,90 |
| | TOTAL | 34.797,90 |

Dado en Eibar a treinta de septiembre de dos mil quince.

El Alcalde, Miguel de los Toyos Nazabal.”

El Pleno se da por enterado.

PUNTO 3º

De la Comisión de Trabajo de Asuntos Institucionales, Jurídicos y Territoriales.

EH Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi Udal Taldeen proposamena, Erregelamendu Organikoaren 9. artikulua aldatzekoa.

“EH Bildu, EAJ-PNV eta Irabazi Udal Taldeek egin duten proposamenaren berri eman da, Araudi Organikoaren 9. artikulua aldatzekoa.

Iritziak ekarri azaldu ondoren, bertaratutako jaun/andreen aldeko botoekin -De los Toyos Nazabal jaunaren, Telleria Echeverria andrearen eta Escribano Ruiz de la Torre jaunaren abstentzioa izan ezik- Udalbatzari proposamen hau egitea erabaki da:

LEHENENGOA: Erregelamendu Organikoaren 9. artikuluaren aldaketari hasierako onespena ematea; aurrerantzean, testu hau izango du:

“9. artikulua:
Udal Lan Batzorde horietako bakoitzean Batzordeburua eta zortzi zinegotzi izango dira, denak berba egiteko eta botoa emateko eskubidearekin. Bilera horietara gainerako zinegotziak ere joan ahal daitezke eta berba egiteko eskubidea izango dute.

Udal talde politiko guztiak ordezkatuta egongo dira ezinbestean Batzordean dauden eskubide osoko kideekin. Zinegotzi bokalen kopurua talde politikoen artean banatuko da sistema proportzionalaren arabera. Batzordeburua ez da sistema

Propuesta de los Grupos Municipales EH Bildu, EAJ-PNV e Irabazi, de modificación del artículo 9º del Reglamento Orgánico.

“Se da cuenta de la propuesta de los Grupos Municipales EH Bildu, Eibarko EAJ-PNV e Irabazi, de modificación del artículo 9º del Reglamento Orgánico.

Tras un cambio de impresiones, con los votos favorables de los señores y señoras asistentes, excepto la abstención de los Sres. De los Toyos Nazabal, Telleria Echeverria y Escribano Ruiz de la Torre, se acuerda proponer al Pleno Municipal:

Primero: aprobar inicialmente la modificación del artículo 9º del Reglamento Orgánico que tendrá el siguiente texto:

“Artículo 9º:
Cada una de estas Comisiones Municipales de Trabajo estará compuesta por el Presidente y ocho concejales con derecho a voz y voto. También podrán asistir a las reuniones el resto de concejales, con derecho a voz.

Los grupos políticos municipales estarán necesariamente representados en los miembros de pleno derecho de la comisión. El número de concejales vocales se distribuirá entre los grupos políticos, por aplicación del sistema de

horretatik kanpo geratuko. Talde politiko bakoitzak izendatuko ditu Batzordean izango dituen ordezkariak eta baita horien ordezkoak ere.

proporcionalidad en el que no queda excluido el Presidente. Cada grupo político designará sus representantes en la Comisión, así como los suplentes de los mismos.

Alkateak, bereak diren Lan Batzordeetako bilera-deiak egiteko eta bilera-buru izateko eskumen horiek eskuordetzan eman ditzake.”

El Alcalde podrá delegar sus funciones de convocar y presidir las reuniones de las comisiones de trabajo.”

BIGARRENA: jendaurreko informazio aldirako hogeita hamar eguneko epea IREKITZEA Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 49. artikuluak dioena aplikatuta, bidezkoak irizten diren erreklamazioak eta iradokizunak aurkezteko.

Segundo: abrir un período de treinta días para información pública a los efectos de presentación de las reclamaciones y sugerencias procedentes, en aplicación del artículo 49 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Epe horren barruan erreklamaziorik edo iradokizunik aurkeztuko ez balitz, Ordenantza hori behin betiko onartutzat emango da eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen legearen 70.2 artikuluak ezarritakoaren arabera sartuko da indarrean, hau da: argitaratu eta hamabost egunera.

En el caso de que en dicho plazo no se hubiera presentado reclamación o sugerencia, se entenderá definitivamente aprobado el mencionado Reglamento que entrará en vigor conforme a lo dispuesto en el art. 70.2 de la Ley Reguladora de las Bases de Régimen Local, a los quince días de su publicación.

Erreklamazioak edo iradokizunak aurkeztuz gero, Udal osoko bilkurak ebatziko ditu."

Caso de presentarse reclamaciones o sugerencias, las mismas serán resueltas por el Pleno Municipal.”

Errasti jaunak hartu du hitza eta esaten du bere Taldea poztu egiten dela EAJ-PNV, Irabazi eta bere taldeak uztailean egin zuten proposamen hura kontuan hartu izatea,

Interviene el señor Errasti quien afirma que su Grupo se alegra de que la propuesta que hicieron EAJ-PNV, Irabazi y su Grupo en el mes de julio se haya

beraien iritziz, horrekin Lan Batzordeen osaketak Udalbatzak berak duen osaketaren isla izango direlako.

tomado en consideración y que creen que con ello sí que la composición de las Comisiones de Trabajo reflejarán la composición del Pleno.

Ondoren Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du testuaren alde egiteari dagokionez uztaileko Udal Osoko bilkuran esan zuen hartara jotzen duela, Mankomunitateko ordezkariak izendatu zireneko hartan eta Imesako Administrazio Kontseiluan esandakora. Bere Taldea ere, dio, poztu egiten da jokabide aldaketa honekin eta alderdi bakoitzak duen ordezkaritza demokratikoaren araberako ordezkapen banaketa hori kontuan hartzen duten organoen osaketa ahalbidetu dela ikustean.

Interviene a continuación el señor Mendicute quien afirma que en lo que es la defensa del texto, se remite a lo que dijo en el pleno de julio, cuando se designaron los representantes de la Mancomunidad y en el Consejo de Administración de Imesa, y que su Grupo también celebra este cambio de actitud y que se favorezca la composición de órganos con representación equitativa a lo que es la representación democrática de cada partido.

Gaur, dio Mendicute jaunak, ez du hitz egingo ardiez, ez txurra ardiez eta ezta merinoez ere; ezta muinaz edo koskaz ere; gaurkoan –dio- ez du arditxorik zenbatuko; baina, ardiez berba egitean, ardi-zaintzan diharduten artzainez gogoratu gaitezke, eta Ameriketara joan ziren euskal artzain guzti haiek akorduan eduki, orduko denboretan bidaia luze hura egiteak zekarren guztiarekin.

No va a hablar de churras ni de merinas, añade, ni de la madre del cordero, ni va a contar ovejitas, aunque hablando de ovejas uno se puede acordar de los pastores que cuidan de ellas, y de los muchos pastores vascos que se fueron a América, con lo que suponía entonces ese largo viaje.

Mendicute jaunak aurrera eginez esan du ez duela larregi luzatu nahi, gai asko daudelako eta parean dituen jarlekuetan jarrita dauden udalkideek ere atseden hartu nahi izango dutelako, biharko eguna beraientzat egun garrantzitsua baita, buruzagia baitatorkie bisitan, eta laztanak eta arrosak izango dituzte, baina Nino Bravo

Continúa afirmando que tampoco quiere alargarse porque hay muchos temas y se supone que los compañeros de la bancada de enfrente querrán descansar porque mañana es un día importante para ellos, pues les visitará su jefe, y tendrán besos y rosas; aunque como diría Nino

zenak zioen bezala: “laztan bat eta lore bat, arina da ekipajea, eta bidaldia benetan luzea.”

Bravo “un beso y una flor es ligero equipaje para un largo viaje”.

Segitu du esaten gaur onartuko dena duela bi hilabete baino gehiago aurkeztu zela, ez dela inongo aldaketarik izan eta aurkeztu zen bezala bozkatuko dela. Akaso, dio, uztailean onartzeko borondatea egon izan bazen, gaurko udal egoera politikoa bestelakoa izan zitekeela.
Mendicute jaunak dio beste guztiak honezkero pentsatzen egongo direla zergatik dihardUen berak ardiez, artzainez, diasporaz, bidaiaz eta ekipajeez berba egiten, eta hori azaltzeko Alkate jaunari esatea asko gustatzen zaion esaera hauekin amaituko duela: “berba asko eta ezer gutxi” edo “urrutiko intxaurrak hamalau, bertara joan eta lau”.

Prosigue diciendo que lo que se va a aprobar hoy está presentado hace más de dos meses, que no ha habido ningún cambio y se va a votar tal cual se presentó, y que tal vez si en julio hubiera habido voluntad de aprobarlo la situación política municipal de hoy sería diferente.
Se preguntarán, concluye, porqué habla de ovejas, de pastores, de la diáspora, del viaje y del equipaje, y lo acabará de explicar con una cita que le suele gustar decir al señor Alcalde: “es que para este viaje no necesitábamos alforjas”.

Alkate jaunak dio esaera hori bere gustukoa dela esan duela Mendicute jaunak, baina berak ez du sekula inoiz esan esaldia bera gustatzen zaionik.

El señor Alcalde afirma que el señor Mendicute dice que le gusta la cita, pero él nunca ha dicho que le gustase la frase.

Irizpenaren bozketa eginda, emaitza hauxe izan da:

Sometido a votación el dictamen se da el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga

Votos afirmativos: Juez Garmendia, López de Guereñu urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Lamarain Cobo, Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren, Errasti Bernedo, Astigarraga

Arrizabalaga (EH BILDU), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE).

Legez, gehiengo osoa eskuratu duenez, diktamena onartu egin da.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordetik.

Oinarri arautzaileak onartzeko proposamena, Eibarko Udalak Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen duten familiei eskolaz kanpoko jarduerak egiteko diru-laguntzak ematekoak, ebaluazio bakoiztuaren araubidez eta zuzenean emateko prozedura erabiliz.

"IKUSITA:

I. Gizartekintzako Teknikariak goiburuan aipatutako Oinarriak onartzeko egin duen proposamena.

II. Kontratazioen eta Diru-laguntzen Unitateko Zuzendariaren aldeko txostena

Arrizabalaga (EH BILDU), García-Antón Lorenzo (IRABAZI).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Andueza Lorenzo (PSE-EE).

Alcanzada mayoría absoluta legal, queda aprobado el dictamen.

De la Comisión de Trabajo de Cuentas, Hacienda y Patrimonio.

Propuesta de aprobación de las Bases reguladora para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de subvenciones para familias que cobran RGI para la realización de actividades extraescolares, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.

"VISTOS:

I. La propuesta de la Técnica del departamento de Servicios Sociales para la aprobación de las Bases en la cabecera indicadas.

II. El informe favorable del Director de la Unidad de Contratación y subvenciones.

III. Funtsen Kontu-hartzailearen fiskalizazio txostena.

Iritziak elkarri azaldu ondoren, Kontu, Ogasun eta Ondare lan batzordeak proposamena botaziora eraman du eta bertaratutako guztiek aldeko botoa eman dute. Horren harira, Udalbatzari, proposamen hau egin zaio:

Oinarri arautzaileak ONARTZEA, Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta kobratzen duten familiei eskolaz kanpoko jarduerak egiteko diru-laguntzak ematekoak, ebaluazio bakoiztuaren araubidez eta zuzenean emateko prozedura erabiliz.”

Errasti jaunak hartu du hitza eta esaten du proposamen hau 2015eko Aurrekontuan jasotako proposamena dela, eta bere Taldea kezkatzen duen gaia, batik bat, familia horietako umeek ez dituztelako gainontzeko umeen aukera berdinak.

Gaineratzen du, beraien iritziz, proposamen honekin, gauza asko lor daitezkeela, eta krisi garai honetan Udalak kohesio soziala bilatzen duten ekimenak martxan jartzea funtsezkoa dela, eta 2016an eta ondorengo urteetan ere ekimen honek bere bidea egitea espero dutela.

III. El Informe de fiscalización del Interventor de Fondos.

Tras un cambio de impresiones, la comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta con el voto favorable de los asistentes propone al Pleno de la Corporación adopte el siguiente acuerdo:

APROBAR las Bases reguladoras para la concesión por parte del Ayuntamiento de Eibar de subvenciones Para familias que cobran RGI para la realización de actividades extraescolares, mediante el procedimiento de concesión directa en régimen de evaluación individualizada.”

Interviene el señor Errasti quien afirma que es una propuesta recogida en el presupuesto de 2015 y que es éste un asunto que preocupa a su Grupo, y sobre todo porque los niños de familias débiles económicamente tienen menos oportunidades de ocio que otros.

Añade que consideran que con esta propuesta se puede lograr mucho y que en esta época de crisis es fundamental que el Ayuntamiento ponga en marcha actuaciones de cohesión social, y que espera que en el año 2016 y siguientes esta acción siga en marcha.

Ondoren Ibañez andreak hartu du hitza. Esaten du bera bat datorrela Bilduk esandakoarekin eta puntu hau onartu egingo dutela, baina bere Taldeak nahiago zukeela proposamena zertxobait gehiago landu izan bazen, orga idien aurretik ipini dela ematen duelako.

A continuación interviene la señora Ibañez para decir que comparte lo dicho por Bildu, que van apoyar el punto; pero que a su Grupo le hubiera gustado que la propuesta se hubiera planteado más trabajada, pues da la sensación que "se ha puesto antes el carro que lo bueyes".

Alkate jaunak dio, hasiera batean behintzat, onuradunak DSBE kobratzen duten familiak direla, seme-alabak eskolan dauzkatenak, eta datu hori ez da zertan azaldu behar Oinarrietan, baina bai ostera ezagutu zein den eskuratu behar den zenbatekoa.

Aurrekontuetan zenbateko bat hitzartu zen, eta berak badaki dauden premia objektiboak betetzeko iritsiko dela horrekin. Edozein modutan ere, dio, zenbatekoa iristen ez bada gehitu egingo litzateke, eta datorrenaren zain daude, hauxe delako lehenengo urtea.

Afirma el señor Alcalde que en principio los beneficiados son las familias que cobran RGI cuyos hijos estén en edad escolar, y que es un dato que no tiene porqué ir en las bases, aunque sí que debe de conocerse de qué cantidad hay que disponer.

Se pactó una cuantía en los presupuestos, que se sabe va a llegar para cubrir las necesidades objetivas que hay, y que de todas formas si la cantidad no llegase se incrementaría, estándose al devenir, pues es éste el primer año.

Ibañez andreak galdetu dio familien datua ezagutzen bazuen zergatik ez zion eman datu hori berak Batzordeak eskatu zuenean.

Pregunta la señora Ibañez que si se conocía el dato de las familias beneficiadas por qué no le dio el mismo cuando lo planteó en Comisión.

Alkate jaunak dio datu hori teknikoa dela, gizarte zerbitzuetan DSBEren zerrendekin eta familia-zamekin egiten dena.

Indica el señor Alcalde que es un dato técnico que se elabora en servicios sociales con los listados de RGI y de las cargas familiares.

Abanzabalegui andreak dio 2015eko aurrekontuetarako kontu-sail hori adostu zutenean, bere Taldeak lan hori egin zuela, Lanbideren datuak eskuan zituela datuak atera —datu horiek publikoak dira— onuradunak zenbat izan zitezkeen ikusteko.

Afirma la señora Abanzabalegui que cuando se consensuó la partida en los presupuestos del 2015 su Grupo hizo el trabajo de cuantificar con los datos de Lanbide, que son públicos, para ver los posibles beneficiados.

Irizpenaren bozketa egin da, eta aho batez onartu da.

Sometido a votación el dictamen, se aprueba por unanimidad.

2.- Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak egindako proposamena 2016ko tarifak onartzeko.

2.- Propuesta de la Asociación Guipuzcoana del Taxi de aprobación de tarifas auto-taxi, para el año 2016.

"Gipuzkoako Taxilarien Elkarteak azaldu duenez, jarduera horretan aritzeko kostuen egitura oinarritzeko egindako azterketa ekonomikoaren eta egoera ekonomiko orokorraren arabera, ez dute uste datorren urterako, 2016, tarifa-igoera eskatzea komeni denik, eta uste dutena da, onartu zen azken tarifa hari eutsi behar zaiola. Horren ondorioz, onartutako azken tarifa hura mantentzea eskatu dute.

"La Asociación Guipuzcoana del Taxi expone que según el estudio económico realizado y la situación económica en general basándose en la estructura de costes para el desempeño de la actividad no creen conveniente solicitar subida de tarifas para el próximo año 2016 manteniéndose en vigor la última tarifa aprobada, por lo que solicitan mantener la última tarifa de taxi aprobada por ese Ayuntamiento.

Kontu, Ogasun eta Ondare Lan Batzordeak proposamena bozkatu du eta aldeko botoak hauek izan dira: M. de los Toyos, P. Arrizabalaga, A. Albístegui, G. Errasti, e Itoitz García-Antón, eta abstentzio 1, E. Ibañez. Horren ondoren, Udalbatzari, proposamen hau egin dio:

La Comisión de Cuentas, Hacienda y Patrimonio procede a la votación de la propuesta y con los votos a favor de M. de los Toyos, P. Arrizabalaga, A. Albístegui, G. Errasti, e Itoitz García-Antón y la abstención de E. Ibáñez, propone al Pleno Municipal:

AURRENA: ONARTZEA Eibarko Udalak onartu zituen azken taxi-tarifa hauek bere horretan mantentzea:

PRIMERO: APROBAR mantener la última tarifa de taxi aprobada por el Ayuntamiento de Eibar y que son las siguientes:

| 2016rako TARIFA PROPOSAMENA / PROPUESTA TARIFA URBANA 2016 | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| TARIFA 1*/ 1. TARIFA | | | 2. TARIFA / TARIFA 2** | | |
| GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZA / Kilómetro recorrido | ITXARON ORDUA /Hora de espera | GUTXIENEKO TARIFA / Tarifa Mínima | EGINDAKO KILOMETRO BAKOITZA / Kilómetro recorrido | ITXARON ORDUA / Hora de espera |
| 5,0153 | 1,2559 | 16,7861 | 5,4610 | 1,3899 | 17,6509 |

(*) Tarifa hori lanegunetan edo astegunetan aplikatuko da 07:00etatik 22:00etara.
(**) Tarifa hori egunero aplikatuko da, 22:00etatik 07:00etara. Bestalde, II. Tarifa hori, domeketan goizeko 7etatik gaueko 10etara (07:00-22:00), eta Autonomia Erkidegoko eta tokiko arautegian finkatutako jai egunetan aplikatuko da, baita zapatuetan eta abenduaren 24an eta 31n ere.

(*) Esta tarifa será aplicable los días laborables entre las 07:00 horas y las 22:00 horas.
(**) Esta tarifa será aplicable todos los días desde las 22:00 horas a las 07:00 horas. Se aplicará igualmente la Tarifa II desde las 07:00 horas a las 22:00 horas los domingos y los días festivos fijados en la correspondiente normativa autonómica y local, así como los sábados y los días 24 de diciembre y 31 de diciembre.

BIGARRENA: Espedientea Euskadiko Prezioen Batzordera bidaltzea, tarifa horien berrikuspenerako espedientearen tramitazioari bide eman diezaion."

SEGUNDO: Remitir el expediente a la Comisión de Precios de Euskadi, a fin de que dé curso a la tramitación del expediente de revisión de tarifas de referencia."

Aurreko irizpena edo diktamena botaziora eramanda, etorri diren guztiek, aho batez, ontzat eman dute.

Sometido a votación el precedente dictamen, se aprueba por unanimidad de los/as asistentes.

Obra, Hirigintza eta Ingurumen Batzordetik.

